

ANTZERKI TOPAKETAK

Antolatzailea: Gipuzkoako Jubilatuta eta pentsiodunen elkarte AGIUPENS

AZAROAK 21, ASTEARTEA
Zumarraga eta Oñatiko antzerki taldeak

16:30 Sutegiko auditoriumean

AZAROAK 22, ASTEAZKENA
Eibar eta Donostiako antzerki taldeak

16:30 Sutegiko auditoriumean

23

Osteguna18:00 Kalejira19:00 Sutegiko auditoriumean

Santa Zeziliren omenezko emanaldia

Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola · Sarrera: Doan.
"Musikalean" kalejira egingo da talde instrumentalarekin.
Ondoren, Sutegin kontertua egingo da instrumentu eta talde desberdinekin.

25

Larunbata10:30Santueneako ludotekan

Barreterapia tailerra

Antolatzailea: Santuenea Kultur elkarte.
Izen ematea: 6 € santueneaguretxikiak@gmail.com

25

LarunbataEgun osozHerrian zehar

Zuberoako ikastolak 50 urte: Usurbilen ere ospatzen

Antolatzaileak: Nafartarrak Kultur Elkarte, Kantu Taldea eta Orbeldi dantza taldea.

Zuberoan ikastolarentzat 2023 hau ospakizunez betetako urtea izaten ari da: aurtten betetzen ditu ikastolak bere 50 urteak. Usurbildik haiekin bereziki harremana daukagunok beraiekin ospatu nahi dugu urteurren borobil hau.

Gaur egun bi ikastola dauzka Zuberoak, bata Atharratzen eta bestea Sohütan. Euskal Herriko beste askorekin batera usurbildarrok ere parte hartu genuen Sohütako ikastola berriaren sorreran eta geroztik parte hartzen dugu antolatzen dituzten ekintza eta kanpainen: Ikastolaren saskien salmenta, Udiñarben udazkena Integrazio Batzordearen alde egiten dugun sagardotegi-afaria eta tartearen sortzen diren gehiagotan.

11:30etan Udarregi Ikastolan ONGI ETORRIA eta harrera Zuberoako ordezkari.

Kale-jira herrian zehar Kantu-jirakoekin

12:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuta

Usurbilgo kaleetan zehar kantuan arituko dira partaideak, kantua zaharrak berreskuratzu eta berriak tartekatuz.

Musika eta dantza eta kantua emanaldia

18:00 Sutegiko auditoriumean Sarrera: 5€ Aurrez Lizardin (egunean bertan ere bai)

Partehartzaileak:

- Mixel Etxekopar eta Jean Kristian Galtzetaburu.

- Herriko bertsolariak.

- Udarregi Ikastola.

- Orbeldi dantza taldea.

XXII. ERLE EGUNA

Antolatzailea: Erle Lagunak

AZAROAK 26, IGANDEA

XXII. Erle Eguna

09:00-10:00 Ezti eta gozogintza bilketa.

11:00-14:00 Azoka. Postuetako salmenta.

Erakusketak Sutegin:

Erleak, ezti, ontziratze prozesua... eta marrazki lehiaketako lanak.

13:30 Euskal Herriko XXII. Ezti Lehiaketako sari-banaketa:

- Ezti Lehiaketako irabazleak

- Gozogintzako irabazleak

- Marrazki lehiaketako irabazleak

Goizean zehar Potxoenean

Eztia oinarri duten terapia desberdinak doan probatzeko aukera egongo da.

26

Igandea17:00Sutegiko auditoriumean

Haurrentzako zinea: Hopper, oilasko erbia

Antolatzaileak: Ziortza eta Usurbilgo Udala.

Sarrerak: 3 euro, usurbilkultura.eus webgunean.

Iraupena: 91 min.

Hopperren, Pedro erregearen seme adoptatuaren istorioa kontatzen du. Erdi oilasko eta erdi erbi jaio zen abenturazale ospetsua. Ezberdintasunak alde batera utzita onartuta izateko irrikaz, Hopper abentura zirraragarri batean murgilduko da bere zerbitzari leial Abe dorka sarkastikoarekin eta Meg borroka-arteetan aditua den mofeta ausartarekin batera, Iluntasunaren Hamsterra izenez ezagutzen den erlikia gutzituaren bila. Hirurek erroka handi bati egin behar diote aurre, Lapin baino lehenago iritsi behar dutelako, duela gutxi kartzelatik ihes egin duen bilau bat, erresumako bakea mehatxatzen duena.

ERAKUSKETA

PIRINIOTAKO ERRESUMAREN JATORRIA 711-824

Sutegiko erakustaretoan.

Noiz: Urriak 30-Azaroak 6

Orduetgia: 18:00-20:00

KZ-GUNEKO IKASTAROAK

AURREZ AURREKOAK

MEKANOGRAFIA Ikasi hutsetik (10 ordu)

Azaroak 2-8 18:00-20:00

PC Teklatua eta sagua hasieratik nola erabili ikas ezazu (6 ordu)

Azaroak 9-13 16:00-18:00

CANVA Ikasi diseinatzen (6 ordu)

Azaroak 14-16 16:00-18:00

Eman lehenengo pausoak argazki ukituan GIMPeKin (16 ordu)

Azaroak 17-21 16:00-18:00

Honez gain, urruneko ikastaro eta bideo konferentzia eskaintza zabala.

Urrian Kzgunea: arratsalde 16:00-20:00

Kale Nagusia 37. · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84

tutor.usurbil@kzgunea.net · www.kzgunea.eus

UDAL LIBURUTEGIA

Goizez, 10:00-13:00

Astegunetan, 10:00-13:00 eta 16:00-19:30

Itxita

Goizez

23

6789101314151617202122232427282930

SUTEGI UDAL LIBURUTEGIA · Irazu kalea, 14 · 20170 Usurbil

Tel.: 943 360 692 · http://liburutegiak.blog.euskadi.net//usurbil/

Zuen deialdiak zabaltzeko, bidali hilaren 15a baino lehen kultur.usurbil.eus helbidera.

Usurbilgo Udala

Kultura, Euskara eta Gazteria Saila

Tel. 943 371 999

kultura@usurbil.eus

www.usurbil.eus

usurbilkultura.eus

Herritarren tresna

Usurbilgo kultura zabaltzeko

	Asteazkena 11:00 Frontoian	XXVII. ARTISAU AZOKA	1
	Osteguna 18:00 Pleno Aretoan	MUNDUALDIA: ONGI ETORRI SAIOA	2
	Osteguna 19:00 Sutegi erakustaretoan	KRUTWIG. BERE MENDEURRENEAN BERRIRAKURTZEN.	2
	Ostirala 21:00 Erroizpe elkartean	BERTSO AFARIA: MAIDER ARREGI ETA ELI PAGOLA	3
	Larunbata 10:00 Sutegi auditoriumean	JARDUNALDIA: VASCONIATIK IRUÑERA, PIRINEOTAKO ERRESUMA 711-824. ENERKO HARITZA	4
	Larunbata 11:00 eta 18:00 Frontoian	MUNDUALDIA AZOKA ETA MUSIKA IKUSKIZUNAK	4
	Igandea 11:30 Kiroldegian	PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS "URTEAK BETE, ABENTURAK BIZI!"	5
	Igandea 18:00 Sutegi auditoriumean	"BIDASOA 2018-2023". FERMIN MUGURUZAREN DOKUMENTALA	5
	Astelehena 19:00 Udal Liburutegian	UDAZKENA UDAL LIBURUTEGIAN: GALEUZKA, LA PERIFERIA CONTRA EL PÁRAMO	6
	Asteazkena 17:30 Sutegi auditoriumean	HELDUENTZAKO IKUSKIZUNA: "GATAZKA, ATASKA EDO ASKA?"	8
	Osteguna 17:30 Udal Liburutegian	UDAZKENA UDAL LIBURUTEGIAN: IRAKUR-JOLAS TXOKOA	9
	Ostirala 22:00 Sutegi auditoriumean	KUTURALDIA: GARI&MALDANBERA. ZUZENEAN BIRA 2023 KONTZERTUA	10
	Larunbata 20:00 Sutegi auditoriumean	KUTURALDIA: ANTZERKIA "KANPORA SARTZEN"	11
	Igandea 18:00 Sutegi auditoriumean	KUTURALDIA: KONTAKIZUNA ETA TERTULIA. "USURBIL BOROBIL ERRIOAN DABIL"	12
	Asteazkena 18:15 Udal Liburutegian	UDAZKENA UDAL LIBURUTEGIAN: IRAKURKETA SOLASALDIA. "MARIXOR" LIBURUA	15
	Igandea 19:00 Sutegi auditoriumean	"HIRU KORTSE, AZUKRE ASKO ETA BRANDY GEHIEGI" ANTZERKI EMANALDIA	19
	Asteartea 16:30 Sutegi auditoriumean	ZUMARRAGA ETA OÑATIKO ANTZERKI TALDEAK	21
	Asteartea 19:00 Udal Liburutegian	UDAZKENA UDAL LIBURUTEGIAN: "VUELTA AL PAÍS DE ELKANO"	21
	Asteazkena 16:30 Sutegi auditoriumean	EIBAR ETA DONOSTIAKO ANTZERKI TALDEAK	22
	Osteguna 18:30 Kalejira 19:00 Sutegin	SANTA ZEZILIREN OMENEZKO EMANALDIA	23
	Larunbata 10:30-13:30 Santueneako Ludotekan	BARRETERAPIA TAILERRA	25
	Larunbata 12:00 Kale-jira Kantu-jira 18:00 Musika eta dantza	ZUBEROAKO IKASTOLAK 50 URTE	25
	Igandea 09:00etatik aurrera	XXII. ERLE EGUNA	26
	Igandea 17:00 Sutegi auditoriumean	HAURRENTZAKO NEGUKO ZINEA: HOPPER OILASKO ERBIA	26
	Asteartea 19:00 Sutegi auditoriumean	UDAZKENA UDAL LIBURUTEGIAN: "80 AMANDRE"	28

ERAKUSKETAK

18:00-20:00 Sutegiko erakustaretoan

VASCONIATIK IRUÑERA, PIRINEOTAKO ERRESUMA 711-824. ENEKO HARITZA

Urriaren 30etik Azaroaren 6ra

2023ko AZAROA


USURBIL

Kultura

XXII. ERLE EGUNA azaroak 26

XXVII. Artisau azoka

Antolatzailea: Aitzaga Elkarte.
Aurtengoa XXVII. Artisau Azoka izango da. Frontoian hogeita hamar postu inguru izango dira: bitxigintza, kosmetika, egur-lanketa, zeramika, otarregintza, metalgintza... Baserrigiroko azoka ere egingo da, eta taloa jateko aukera izango da.



Bertso-afaria:
Maidar Arregi eta Eli Pagola

Antolatzailea: Erroizpe Kultur Elkartea.
Bertsolariak: Maidar Arregi eta Eli Pagola.
Tiketak: 20€tan Txirristra, Benta, Antxeta eta Artzabal tabernetan.



NOAUA! KULTURALDIA 2023
Azaroak 5-12


Antolatzailea: Noaua! Kultur Elkartea.
Nori zuzendua: gazte eta helduei.

AZAROAK 5, IGANDEA
Pirritx, Porrotx eta Marimotots
"Urteak Bete, Abenturak Bizi!"
11:30 Oiardo Kirodegian
Antolatzaileak: Noaua! Kultur Elkartea eta Usurbilgo Udala.
Nori zuzendua: Haur eta gaztetxoek.
Sarrerak: 8€ usurbilkultura.eus webgunean.



35 urte beteko ditugu pailazo taldeak eta horren ospakizuna izango da saioa. Sudurgorrian bizitzan lagun egin ditugun hainbat etorriko dira bisitan ospakizunean parte hartzera. Kantua, dantza eta denon parte-hartzea ez da faltako, ezta tarta erraldoia ere... urteak betetzea garrantzitsua bada, are gehiago abenturak bizitzea!... eta hori izango da gure ospakizuna, beste abentura bat bizitzea!

AZAROAK 5, IGANDEA
"BIDASOA 2018-2023"
Fermin Muguruzaren dokumentala
18:00 Sutegiko auditoriumean
Antolatzailea: Noaua! Kultur Elkartea.
Nori zuzendua: helduei.
Sarrerak: aldeaz aurretik salgai 6€tan usurbilkultura.eus webgunean. Bazkideek 4€tan eskuratu ahal izango dute sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.



2018ko udan Frantziak ezarri zituen Pirinio-Atlantikoko Bidasoako muga naturalaren pasagune batzuen kontrola eta itxierak, Europako gainontzeko herrialdeetara igarotzeko etorkinen sarrera eragozteko, 10 hildako eragin zituen urtebetea. Zazpi pertsona hil dira 2021eko apiriletik Irun eta Hendaia arteko Bidasoa ibaiko uretan itota, eta beste hiruk bizia galdu zuten 2021eko urrian, Ziburun tren batek harrapatuta. Dokumental honek, ibaiaren bi aldeetako hainbat ekintzaileri ahotsa eta aurpegia emateaz gain, Harrera Sarea eta Bidasoa elkarreetako ordezkarriak, bizia galdu dutenak ere gogoan izango ditu; izena, adina, bidaia eta ametsak, hildako kopuru hotzen atzean dagoen istorioa eta pertsonak ezagutuz, modu honetan tragedia gizatiartuz.

AZAROAK 10, OSTIRALA
Kontzertua. Gari&Maldanbera
22:00 Sutegiko auditoriumean
Sarrerak: aldeaz aurretik salgai 10€tan usurbilkultura.eus webgunean. Bazkideek 8€tan eskuratu ahal izango dute sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.

"Gari & Maldanbera + Hertzainak taldearen erreperorioa", erreperorio bikoitzeko emanaldi berezia da. Alde batetik, Gari, Maldanbera taldearekin batera, bere bakarkako ibilbideko azken 30 urteetako abesti ezagunenak errepasatuko ditu. Horiek guztiak "Gari & Maldanbera. Zuzenean" izeneko diskoan jaso dituzte eta hori da, hain zuzen ere, aurtun Euskal Herrian zehar aurkeztu ari diren lana. Dagoeneko gure bizitzako soinu-bandaren parte diren abestiekin berriz gozatzeko gaua izango da beraz!!



AZAROAK 11, LARUNBATA
Antzerkia. Kanpora sartzen
20:00 Sutegiko auditoriumean
Sarrerak: aldeaz aurretik salgai 8€tan usurbilkultura.eus webgunean. Bazkideek 6€tan eskuratu ahal izango dute sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.

Aitziber Garmendia Mendizabal zuzendari lanetan eta Xabin Fernandez Zubeldia eta Intza Alkain Ibaguren aktore lanetan.

UMOREZ BETETAKO emanaldi gordina.

2013ko martxoaren 11n, Xabinek seropositiboa zela jakin zuen; egun hartan, dena aldatu zen. Hamar urteren ostean, Xabinen eta Birusaren arteko harremanari buruz hitz egiteko garaia heldu da. Euren arteko elkarbizitzaren testiguak izango gara obra honetan, azken hamarkadan gertatutako pasadizoak errepasatuz. Pilulak, estigma, lotsa, kontsultak, beldurra, kulpak, bakardadea, osasun mentala, terapia, pandemia... Nola eragin du birusaren etorrerak Xabinen eguneroko bizitzan? Lehen pertsona idatzitako istorioa da KANPORA SARTZEN. Sentimendu gordinenen eta umorearen arteko oreka bilatzen duena, eta seropositibo baten egunerokotasunean gertatzen diren kontuak azaleratu nahi dituena. Lortuko al dute Xabinek eta Birusak kanpora sartzea?



AZAROAK 12, IGANDEA
Kontakizuna eta tertulia:
"Usurbil borobil erriogan dabil"
18:00 Sutegiko auditoriumean
Sarrerak: doan.



Ixabel Agirresarobe Arzallus herritarrek 2023ko sormen diru laguntzetan aurkeztu eta babestutako proiektua ikusteko aukera izango dugu. Zubietan, Urdaigara (Santutene eta Txokoalde) eta Aginagako herriarekin, errioko hainbat kontu eta pasadizo jaso ditu. Ahoz eta zuzenean jasotakoarekin ipuin bat sortu da, "gure herriko erriogan ipuin bat". Emanaldian ipuinaz gozatzeko aukera izango dugu eta, ondoren, bertaratutakoekin tertulian jarraitzeko aukera izango dugu.

MUNDUALDIA 2023

AZAROAK 2, OSTEGUNA
Ongi-etorri saioa
18:00 Pleno aretoan
Usurbilgo alkateak eta Aniztasun Kontseiluak ongi-etorria egingo die 2023ko urtariletik irailera bitartean herrian erroldatutako herritarrei.



AZAROAK 4, LARUNBATA
11:00-12:30 Frontoi inguruan
Zirimara familiar, bertako eta jatorri ezberdinetako familiekin jolasak.

18:00**etatik aurrera** (frontoian)
- **Usurbil Harrera Herri proiektuaren aurkezpena.**
- **Jakien dastaketa:** jatorri ezberdinetako jakiak dastatzeko aukera.
- **"Ndank-Ndank"** Senegaleko taldearekin musika eta dantza.

JARDUNALDIAK
Vasconiatik Iruñera,
Pirinioetako Erresuma 711-824
ENEKO HARITZA

Antolatzailea: Nafartarrak Taldea.
Laguntzaileak: Usurbilgo Udala eta Nabaralde Fundazioa.
Sarrera: doan.



ERAKUSKETA
Pirineotako Erresumaren jatorria 711-824
Noiz: Urriak 30-Azaroak 6
Ordutegia: 18:00-20:00

URRIAK 31, ASTEARTEA
Pako Aristi Urtzagara: "Irunberri 1990: gure herriaren metafora bat" liburuen aurkezpena
19:00 Sutegiko erakustaretoan.
"Irunberri 1990 ikerketa kriminal bat da, baina ez hori bakarrik: Euskal Herriaren historia garaikidearen pasarte bat da, gaur eguneko klabe asko gordetzen dituena. Izan ere, Estatuak suizidio kolektibo gisa katalogatu zuena Estatu krimena izan zela demostratu dugu."



AZAROAK 2, OSTEGUNA
Oskar Aranzabal: "Krutwig. Bere mendeurrenean berrirakurtzen" liburu biografikoaren aurkezpena
19:00 Sutegi Erakustaretoan.
Federico Krutwig Euskal Herriak XX. mendean izan duen pertsonaia nabarmenetariko bat izan da. Euskaltzaina, idazlea, politikaria, poliglota eta poliedrikoa. Errenazimenduko gizona. Nabaralde Fundazioak Federico Krutwig Sagredoren bizitza, pentsaera eta lanak jasotzen dituen liburua argitaratu zuen. Krutwigen Lagunak elkarte edo kolektiboko 13 lagunek idatzi dute bertan, tartean Oskar Arantzabal eibartarrak.



AZAROAK 4, LARUNBATA
Jardunaldia
10:00 Sutegiko auditoriumean.
BI HITZALDI

Banu Qasi Vascones islamizados
Hizlaria: Jose Luis Orella Unzué.
Hizkuntza: Gaztelera.
Iruñeko erresumaren jatorrian, familia handi baten presentzia eta eragina agertzen da: Banu Qasitarrek, baskoi islamizatuak, Eneko Haritzaren zuzeneko ahaideak eta Casiorene seme-alabak, erromatar arbasoen leinu baten ondorengoak. Euren botereari eta Kordobako kalifekin zuten loturari esker, laguntza garrantzitsua eman zioten nafar erresumari, hasieran eta etsai frankoen aurkako borrokan.

Errozabal/Orreaga 824ko gudua
Hizlaria: Beñi Agirre Oizartza.
Orreagakoa ez zen bataila bakarra izan. Errozabalen hamaika aldiz jokatu ziren gudaldiak, azken hirua erabakigarriak; mugarrak, 824an, Eneko Haritza buruzagia zorutik altza zutenean.
12:00 Sutegiko auditoriumean.

Mahai ingurua: Iñaki Idigoras, Iñigo Larramendi eta Angel Rekalde.
Moderatzailea: Mentxu Zorita.
Orreagako batalla irabazi ondoren, Iruñeko erresuma gauzatzen da. Nafarroa eta euskaldunen independentziaren jatorria. Ze balore dauka gaur egun horrek? Ze esanahi ematen diogu? Zer dakigu? Noraino ulertzen dugu gure izatearen oinarrian dagoela, mila urtez herri libre izatea eta esparru propioa edukitzea: hizkuntza, kultura, identitatea, lurraldea... garatzeko .

AZAROAK 6, ASTELEHENA
"Galeuzca, La Periferia contra el Páramo" **liburuaren aurkezpena:** Xosé Estévez
19:00 Udal liburutegian.
Antolatzaileak: Nafartarrak eta Usurbilgo Udal liburutegia
Liburuaren aurkezpena, Xosé Estévez egilearen eskutik. Galizia, Euskal Herria eta Katalunia, 3 nazioen arteko akordio politikoak XX mendean zehar jasotzen ditu aipatu liburuak.



"Gatazka, ataska edo aska?"
Helduentzako Ikuskizuna

Antolatzailea: Hitz Aho Udarregi ikastolako guraso elkarte.
Sarrera: doan.
Erlazio kudeaketan oinarritutako ikuskizuna helduentzat.

Nerea Mendizabal Psikopedagogoak eta Itziar Saenz De Ojer "Pituxa" Pedagogokoak harremanen inguruan hausnartzeko begirada umoretsua duen kantu eta elkarriketa saioa eskainiko dute. Komunikazio ez bortitzaren ikuspegia antzerki, umore, musika eta edukiekin nahastutako ikuskizun dibertigarri honek edonorentzat esanguratsuak zaizkigun egoeretatik askatzeko arintasuna eskaini nahi dira.



UDAZKENA
SUTEGI UDAL LIBURUTEGIAN 2023
Antolatzailea: Sutegi Udal Liburutegia


AZAROAK 6, ASTELEHENA
Galeuzca, La Periferia contra el Páramo
19:00 Udal liburutegian · **Sarrera:** doan



AZAROAK 9, OSTEGUNA
Irakur Jolas Txokoa
17:30 Udal liburutegian.
Sarrera: Doan · **Iraupena:** ordu bate inguru.
3-5 urteko haurrentzat eta euren guraso, aiton amona, zaintzaile, irakasle e.a.-rentzat, hau da, haur bakoitzak laguntzaile batekin etorri beharko du. Kopuru mugatua; izen-ematea Sutegi Liburutegian.



AZAROAK 15, ASTEAZKENA
Irakurketa solasaldia
18:15 Udal liburutegian
Sarrera: Doan · **Iraupena:** ordu bate inguru.
9-11 urtekoei zuzendua. Mintzagai: MARI XOR liburua; Yolanda Arrieta idazlea gure artean izango da. Liburua eskuragarria Sutegi Liburutegian.



AZAROAK 21, ASTEARTEA
Vuelta al Pais de Elcano
19:00 Udal liburutegian.
Sarrera: Doan · **Iraupena:** ordu eta laurden inguru.
Liburuaren inguruko hitzaldi-solasaldia Ander Izagirre idazlearen eskutik. Nahi izanez gero, liburua eskuragarri Sutegi Liburutegian.



AZAROAK 28, ASTEARTEA
80 Amandre
19:00 Udal liburutegian
Sarrera: Doan · **Iraupena:** ordu bate inguru.
Helduentzako Ipuin Kontaketa saioa. Udal parekidetasun sailaren eskutik.



"Hiru kortse, azukre asko eta Brandy gehiegi" antzerki emanaldia.

Antolatzailea: Udal Parekidetasun saila.
Aktoreak/zuzendaritza/testua: Erika Olazola, Iraia Elias eta Amancay Gaztañaga.
Sarrerak: doan, usurbilkultura.eus webgunean · **Iraupena:** 70'
"Nor naiz ni, zuk fikzionatzen ez nautzunean? Nor zara zu, ni fikzionatzeko baimenik ez duzunean? Izan gaitezke gu? Zer deskasari beharko genuke, nola, nondik..."
Emakume 1, emakume 2, emakume 3, kanpai hotsekin batera, puntual elkartzen dira merienda mahai baten inguruan. Tisana, pasta, azukre eta pastelitoz betetzen dituzte gorputzak, beraien egunerokotasunaz hitz egiten duten bitartean. Ba ote dakite, beraien bizitza beste norbaitek kontatua izan dela? Zein begiradatik izan dira sortuak emakume hauek? Nork idatzi du tinta lodiz historia? Historia kontatu diguten bezalakoa da? Nork mugitzen ditu emakume hauen kortseen hariak?

